

FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAUBIDEA

1. artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatea izeneko federazioa eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorriz.

Halaber, Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatea izeneko federazioari 2014ko urriaren 20ko Kultura Ondarearen zuzendariaren Ebazpenaren bidez (2014ko urriaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria eta 2018ko irailaren 25eko Espainiako Aldizkari Ofiziala) baimena eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik edo nagusiki jardun dezan Jabetza Intelektualaren Legean aitortzen diren eskubideak kudeatzeko erakunde gisa.

Federazioa arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak; apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratua, maiatzaren 6ko 5/1998 Legea, eta hura aldarazteko beste ezein xedapen; estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira); federazioaren gobernu-organoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

FEDERAZIOAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Federazio honen helburuak honako hauek dira:

a) Egile eta jabetza intelektualaren eskubideen beste ezein titularren ustiapen-eskubideak eta ondare izaerako eskubideak kudeatzea. Zentzu honetan Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak egile eta jabetza intelektualaren eskubideen beste ezein titularren ustiapen-eskubideak eta ondare izaerako eskubideak kudeatuko ditu, horretarako baimena duen heinean:

- Izan ezagutzen diren euskarrietan zein sortuko direnetan, literatura, musika, antzerki, zinema, sorkuntza bisuala, arte plastiko, argazkilaritza zein beste edozein obra ikusentzunezko edo multimediaren gaineko erreproduktzio, zabalkunde eta komunikazio publikoko eskubide eskusiboak. Obra horiek izan daitezke originalak edo eratorriak.

- Aipatutako obrei lotutako transformaziorako eskubide eskusiboak.

- Aipatutako obrei lotutako eta legez aurreikusitako ordainketa-eskubide guztiak, konpentsazio ordainketa barne.

Eskubideon kudeaketari dagokionez, apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren 150. artikulua aintzatetsitako legitimazioa izango du eta bere erreperitorioa osatuko du lotutako eskubideren bat kudeatzeko entitatearen esku utzi den obra orok, bai zuzenean bai zeharka, lagapen, mandatu edo lege bidez.

Eskubideen kudeaketarako, bazkideek, kontratua sinatuko dute Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatearekin. Kudeaketa kontratua izango da, eta zera xedatuko da bertan:

- Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateari kudeatu ditzan esleitzen zaizkion eskubideak. Eskubideon titularrek Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateari esleituko die bazkide bihurtzen diren unean beronen kudeaketapean utzi nahi dituen eskubideen kudeaketa, edozein lurraldetarako. Halaber, kudeaketa-mandatuak irauten duen artean eskuratutako eskubideak ere kontratuaren barne sartu ahal izango dira. Europar Batasuneko hiritarren kasuan, mandatua mugatu ahal izango da, beti ere egoki dokumentatzen badira honako salbuespenak: eskubide bat edo batzuk kudeatzeko ezarri den salbuespena edo kontratutik kanpo utzitakoena, beste ezein herrialdetarako, gisa berako entitate baten edo batzuen esku utzita badaude; eta

lurralde eremu batean kudeaketa egiteko salbuespena, beti ere kontratutik kanpo utzitako lurraldeetako kudeaketa gisa bereko entitate baten edo batzuen esku utzita badago edo, Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetan, eta nahiz eta Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak kudeatu ahalko lituzkeen, erreperitorioaren batasuna dela bide zailtasunak baleude.

- Beste ezein pakto edo baldintza, legearekin eta Estatutuekin bat.

Kudeaketa-kontratuak ezin izango du ezarri esplotazio-mota guztietarako mugagabeko kudeaketarik, ezta etorkizuneko obren gainekorik ere.

Posible izango da lurralde anitzeko baimen ez eskusiboak ematea musika obren lineazko eskubideen gainekoak. Eskubide mota horiek egile eskubideen kudeaketaz arduratzen den beste entitate batek ordezkari ditzake.

Kontratua urte beterako izango da eta automatikoki luzatuko da, isilbidez, betiere eskubideen titularrak uko egiten ez badio. Kontratuari uko egin nahi izanez gero, hartu izana jasota geratzeko modua ematen duen bide batetik jakinarazi beharko da.

Kudeaketa kontratuari uko egitea eska dezake beraz egileak edo eskubideen titularrak, apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratua aldarazten duen apirilaren 13ko 2/2018 Erret Lege Dekretuak 158. artikuluari ematen dion idazkera berriak ezarritakoaren arabera, zati batean edo osorik. Uko egite hori izan daiteke eskubideen gainekoa, kategoria batzuen gainekoa, obra klase batzuen edo prestazio jakin batzuen, berak hautatutako lurralde-eremuan. Edozein unetan eska dakiok hori Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateari zuzendutako komunikazio baten bidez, jaso izanaren konstantzia utziko duen ezein bidetatik. Uko egite horrek Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak jaso eta biharamunetik izango du eragina.

Uko egitearen efektuak ematen diren unean titularrari zenbatekoak zor bazaizkio - errebokazioa osoa zein zati batekoa izan-, titularrak informazio hau jasoko du:

- Entitateak ordaintzeko zain dauden eskubide horien gain aplikatuko dituen kudeaketa deskontuak eta beste dedukzio batzuk.

- Eskubideen banaketa eta ordainketekin lotuta dauden eskubideak zeintzuk diren.

- Apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuan ageri diren informazio eskubidearekin lotutako inguruabarrak: eman dituen kontaktuko datuak, errakaudatutakoa eta berari esleitutakoa, kobratutako zenbatekoak kudeatutako eskubide kategoria bakoitzeko eta erabilpen mota bakoitzeko, berari esleitu eta ordaindutako zenbatekoak zein epetakoak diren, dedukzioak eta deskontuak eta ordaintzeko pendiente dagoena.

- Titularrak dauzkan erreklamazio edo kexarako bideei buruzkoa, Estatutu hauen 32. Artikuluko 7. Puntuak ezarritako eran.

Titularrak entitateari kopururen bat zor badio etorkizuneko eskubideen pentzura egindako aurrerakinen bat dela bide, uko egite oso edo zati batekoaren objektu diren eskubide, eskubide kategoria, obra mota, prestazio zein lurralde eremuak kudeatzen jarraituko du zorra kitatu arte, eta momentu horretatik aurrera izango du uko egiteak efektua.

Orokorrean, legezko kausa orokorrak direla bide iraungiko da kudeaketa-kontratua.

Kudeaketarako kontratuek ahalbidetu beharko dute, edozelan ere, erreperitorioaren erabiltzaileek influentziarik gabeko erabilpena egin ahal izatea eta galarazita egongo da obren erabilpen preferentziala. Hori segurtatzeko, kontratuak espresuki adieraziko du, eta Eusko Jaurlaritzari klausula zehatzak zeintzuk diren jakinaraziko zaio.

b) Bazkideen onurarako jardura eta zerbitzu asistentzialak eskaintzea. Zentzu honetan, bazkideei, eta batez ere egoera larrienean direnei, laguntzeko programa asistentziala eskainiko du, zuzenean zein beste entitate batzuen bidez zerbitzua emanaz.

c) Autore, artista interprete eta egileei formazioa eta promozioa eskaintzea.

d) Bazkideen eskubide profesional eta moralak defenditzea. Eskubideen kudeaketa bere esku utzi duten titularren eskubide moralak baliarazi ditzake Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak, horretarako mandatua jaso badu. Halaber, printzipio eta erregelak gomendatu ditzake bazkideen jarduera profesionalerako, eta beraien arteko gatazketan arbitratzea bere gain har dezake, beti ere arbitratzeari buruzko legeek xedatutakoarekin bat.

Helburu horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

a) Egile eskubideen alorreko jarduerak:

- Bere bazkideen erreperorioaren kudeaketan, beharrezko den baimena ematea jabetza intelektualeko eskubideren batek babestutako edozein ustiapen egin ahal izateko, eta baimen horretatik eratorritako ordainketak jaso eta kudeatzeko.
- Egile eta jabetza intelektualaren eskubideen ezein titularren ordainketa- eskubideen kobrantza egin eta, hala balitz, tarifa, hitzarmen sektorial zein kontratu indibidualen bidez arautu. Helburu honekin kontratu orokorrak ere egin ahal izango dira kasuan-kasuko erabiltzaile elkarte sektorialekin.
- Kalte-ordainen kobrantza egin eta kudeatu, eskubideen urraketarik eman bada eta esplotazioaren bat egin bada baimenik gabe edo modu bidegabean.
- Bildutako ordainketa- eskubideak eta kalte-ordainak banatzea, Estatutuekin eta indarrean den araudiarekin bat.
- Eskubideak kudeatzeko eta ordezkartzarako kontratuak egitea beste egile eskubideen kudeaketarako entitate batzuekin.
- Jarduera-eremutik kanpo egile eskubideen kudeaketarako entitateak sortzea edo jada badirenetan parte hartzea, erreperorioaren kudeaketa lagatuz, beti ere, 4. artikuluko lurralde eremua errespetatuz.
- Beste ezein jarduera, erreperorioaren kudeaketa egokirako.

b) Aholkularitza juridikoa eta formazio jarduerak.

c) Aurretik azaldutako jarduerak gorabehera, federazioak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Federazio honen egoitza helbide honetan egongo da: Kalea: Agoitz Plaza 1, Bilbo; PK: 48015.

Federazioak beste lokal batzuk ere eduki ditzake autonomia-erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Federazio honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere zereginak: Euskal Autonomia Erkidegoan.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUUA

5. artikulua.- Federazioa iraunkorra izateko eratu da, eta Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez baino ezingo da desegin, IV. kapituluaren esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoien batengatik.

Federazioaren funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Federazioaren agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Federazioaren jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea. Orokorrean, erakundearen ekintzak eta gobernu- eta ordezkari-organoen egiten duten kudeaketa kontrolatzea.
- d) Erakundearen Estatutuen aldaketak onartzea.
- e) Federazioa desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina, barne kontroleko organoko kideak eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea; beraien errendimendua ebaluatzea; jaso ditzaketen ordainketak eta bestelako prestazio zein diruzko ala diruzkoak ez diren irabaziak, beste prima batzuk izateko eskubideak, zein kaleratzeagatik edo beste arrazoi batzuegatiko kalte ordainak onartzea.
- g) Beste federazio batzuekin batera konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea. Fusioak, aliantzak, filialak eta erosketak onestea zein parte hartzeak edo eskubideak eskuratzea, salbu legeak edo arauak derrigor ezarriak badira.
- h) Ondasun higiezinak eskuratu, besterendu eta hipotekatzeko edozein ekintza onartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorra aginte-organoi eskuordetu diezaioket horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Gobernu eta ordezkari-organoen landutako Banaketa erregelamendua berrestea, Estatutuetan erregulatzen diren printzipio orokorrekin bat etorritik.
- m) Banatu ezin diren kopuruen erabileraren politika orokorra onartzea, Jabetza intelektualeko legearen 177.6 artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera.
- n) Bildutako eskubideak inbertitzei buruzko politikak onartzea, baita inbertsio horietatik eratorritako edozein etekin, zeinak Merkatu Baloreen legeko bosgarren xedapen gehigarrian arautzen diren portaera-kodeetan ezarritako printzipio eta gomendioak jarraitu beharko dituen, baita haren garapenerako araudiak dioena ere, urriaren 23ko 4/2015 Legegintza errege-dekretuaren bitartez onartu dena.
- o) Bildutako eskubideen gaineko dedukzioei eta berauek inbertitzetik lortutako edozein etekinei buruzko politika orokorra onartzea.
- p) Arrisku-kudeaketaren politikak onartzea.
- q) Mailegu eta jastapenak onartzea, edo abal eta garantiak eratzea, apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren 177.8 artikuluan bidetik, eta beronen 177.9 artikuluan ezarritako kasu berezietan salbu.
- r) Apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren 187. artikuluan zehazten diren auditoritzaren eta kontuhartzailetzaren gaineko erabakiak hartzea: auditorien izendapena eta kasua balitz errebokazioa, eta berauen txostena onartzea.
- s) Gardentasun txostena onartzea.

- t) Estatutu hauen 28. Artikuluko Barne Kontrol Organoko kideak izendatzea eta Barne Kontrol Organoari eskumenak delegatzea, beti ere apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuko 160.1 artikuluko g)-tik j)-rako kasuetarako bada.
- u) Barne Kontrol Organoari erreztea bere kontrolerako kompetentziak gauzatzeko behar duen edozein informazio igortzea, hiruhileko bakoitzeko behin gutxienez
- v) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu. Bilkurotan ezin izango da erabaki eguneko gai ordenean ez datozen gaien inguruan.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % 25ek eskatu dutelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Federazioa desegiteko.

Barne Kontrol Organoak deitura ere bilduko da, honek entitatearen intereserako dela irizten dionean. Estatutu hauen 11. artikuluko ezarritako betekizunak bete beharko ditu Barne Kontrol Organoak, dena dela, deialdia egiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez bost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratu geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Bazkide bakoitzak boto bana izango du Batzar Orokorrean. Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soiluz hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Nolanahi ere, batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen gehiengo osoa (erdia+1) beharko da gai hauen inguruko erabakiak hartzeko:

- a) Federazioa desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoa kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek edozein bazkideren utzi dezaketen beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza inoren esku uztea idatziz egin beharko da, eta idazkia, bilera hasi baino lehen helarazi beharko zaio Batzarreko idazkariari. Federazioaren egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz federazioaren interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa. Zuzendaritza Batzordearen bilkuretan ezin izango da erabaki eguneko gai ordenean ez datozen gaien inguruan.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira:

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Idazkari-diruzaina, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 15.1.d) artikuluaarekin bat, eta Estatutu hauetan zehazten diren bi karguen zeregin eta betekizunekin.
- Gehienez lau (4) kide

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 4. aldiz jarraian, edo, tarteka 6 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.
16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek 4 urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.
- Hautaketa prozedura deialdiarekin zabalduko da. Deialdia egiteko erabakia Zuzendaritza Batzordeak berak hartuko du. Deialdia publiko egingo zaie bazkide guztiei bideratutako komunikazio baliabideetatik. Deialdian honakoak zehaztuko dira:
- a) Hautagaitzak aurkezteko epea
b) Hautagaia aurkezteko modua, hautagaitza bidaltzeko helbidea, bulegoa edota posta elektronikoa.
- Idazkariak gainbegiratu du hauteskunde prozesua, egon daitezkeen hutsuneak beteko ditu, arauak interpretatu eta erreklamazioak ebatzi. Prozedura hauxe izango da:
- Batzar Nagusiko deialdian hautagaien berri emango da.
 - Botoa ezin izango da delegatu.
 - Bazkide bakoitzak bozka txartel bana jaso eta bertan emango du bere botoa.
 - Zuzendaritzako batzordekide kargua, Batzar Nagusian, bozka txartel bidez egingo da, botorik gehien jaso duten hautagaiak onartuaz.
 - Batzar Nagusiak hautagaiak berretsi eta 15 eguneko epean Zuzendaritza Batzorde berria eratuko da. Hilabete bateko epean EAEko administrazio erregistroari aldaketa hauen berri emango zaio.
 - Zuzendaritza Batzordearen eraketa batzarrean lehendakaria eta gainontzeko karguak aukeratuko dira.
17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbesteko baldintza dira pertsona fisikoenzat nahiz pertsona juridikoen ordezkariarentzat:
- a) adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
c) Erakundeko bazkidea izatea.
18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.
- Zuzendaritza Batzordeko kideen dietak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.
19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:
- a) Agintealdia bukatzen denean.
b) Dimititzen dutenean.
c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
e) Hiltzen direnean.
- "a)" idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.
- b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoia, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.
- Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.
20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:
- a) Federazioaren eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
b) Federazioak gauzatu beharreko ekintzen egitaraua egitea.

- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere federazioen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritz.
- g) Estatutu hauen 42. artikulua araberak, urteroko gardentasun txostena prestatzea.
- h) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.
- i) Barne Kontrol Organoari erreztea bere kontrolerako konpetentziak gauzatzeko behar duen edozein informazio igortzea, hiruhileko bakoitzeko behin gutxienez.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, Zuzendaritza Batzordean denbora luzeagoa daraman batzordekidea.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KARGUAK

LEHENDAKARITZA

22. artikulua.- Lehendakariak beregain hartuko du federazioaren legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatzeko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

23. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilera bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Federazioaren ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta federazioaren zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Balioztasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

LEHENDAKARIORDETZA

24. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkatzeko du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARI-DIRUZAINA

25. artikulua.- Idazkari-diruzainari dagokio, zehazki, federazioan sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, federazioen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, federazioaren agiri ofizialak zainduz, federazioko liburuaren eta artxiboaren edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

Gainera, egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

KIDEAK

26. artikulua.- Kideek Zuzendaritza Batzordeko kargu gisa dagozkien betebeharrak izango dituzte (elkartearen zuzendaritzaz eta ohiko kudeaketaz arduratzea), bai eta Zuzendaritza Batzordeak berak agintzen dizkienak.

BATZORDE BEREZIAK

27. artikulua.- Kudeaketa ekonomiko eta finantzieroaren kontrola Batzar Orokorrak izendatutako hiru (3) kideko batzorde batek eroango du, eta berari dagokio kontu auditatuak prestatzeko auditorearekin edo auditoreekin elkarlanean aritzea, Batzar Orokorra jakinaren gainean jartzea eta Zuzendaritza Batzordea aholkatzea. Bere bilkuretan ezin izango da erabaki eguneko gai ordenean ez datozen gaien inguruan.

Bazkideen gutxiengoak ere auditorea izendatu ahal izango du, gehiengoak auditorea izendatzen duen Batzar Orokorraren bilkura berean, gehiengoaren auditorearekin ados ez daudenen gehiengo soilarekin. Gutxiengoaren auditoreak ahalmen eta betekizun berberak izango ditu eta batera informatu ahal izango dute biek, txostenak bat badatoz, edo bakoitzak bere aldetik, desberdinak balira.

Ekitaldi ekonomikoa itxi eta sei (6) hilabeteko epean Zuzendaritza Batzordeak Memoria, Balantzea eta Kontuak egingo ditu, Batzar Orokorrak onetsi ditzan. Kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren batzordeak aztertuko ditu eta Memoria, Balantzea, Kontuak zein auditoria edo auditoriak, txosten berean, Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatearen egoitzan egongo dira bazkide guztientzat eskuragarri, onespenerako utziko diren Batzar Orokorraren bilkura baino hamabost (15) egun lehenago. Kontu auditatuak soilik aurkeztu ahalko ditu Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrari aztertu eta onar ditzan, eta auditoreen konformitatea duten edo ez adierazi beharko du.

28. artikulua.- Apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratua aldarazten duen apirilaren 13ko 2/2018 Erret Lege Dekretuari jarraiki, Barne Kontrol Organoa sortuko da.

Barne Kontrol Organoa Batzar Orokorrak izendatutako hiru (3) kidek osatuko dute. Hiru kideok Zuzendaritza Batzordeak proposatuko ditu.

Kideetako bat (1) hirugarren independentea izango da, Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateko kide ez dena, funtzioak egikaritzeko nahikoa jakintza duena.

Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateko kide direnek ez dute egon behar egitatezko edo legezko harremanean, ez zuzenean ez zeharka, Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateko gobernu edo ordezkaritza organoetako kideekin.

Barne Kontrol Organoko kideek ezin izango dute egitatezko edo legezko harremanik izan, ez zuzenean ez zeharka, Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatearen gobernu- eta ordezkaritza-organoetan parte hartzen duten pertsona fisiko ezta juridikoekin ere.

Barne Kontrol Organoan kideen kategoria guztiak modu berdin eta orekatuan ordezkaturik egongo dira.

Egitatezko edo legezko harremana dagoela ulertuko da, ahaidetasun edo odolkidetasuna dagoenean bigarren gradura artekoa, edo lan harremana edo harreman merkantila izendapena jaso aurreko bost urteetan.

Kideok, kargua hartzean eta gerogarrenean urtero, interes-gatazka posibleen berri emango die Batzar Orokorrari, beronek azter dezan. Berri-emate horiek Eusko Jaurlaritzari bidaliko dizkio Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak, ikuskaritza eginkizunetarako.

Kideen agintaldia lau (4) urtekoa izango da, behin berriztagarria beste lau (4) urterako. Batzordea utziko dute honako arrazoiak direla bide:

1. Hiltzea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desagitea).
2. Kidea bere borondatez joatea.
3. Lau (4) urteko bi agintaldi betetzea.

Barne Kontrol Organoak inola ere ez du egikaritu Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatearen ordezkari eta kudeaketa.

Bere eskuduntzak honakoak izango dira:

- a) Gainbegiratzea, modu orokorrean, entitatearen ordezkari eta gobernu organoen jarduerak eta funtzio-egikaritzea.
- b) Batzar Orokorrak hartutako erabakiak eta politika nagusiak zelan egikaritzen diren gainbegiratzea eta, zehazki, banatu ezin diren zenbatekoen inguruko politika, errekaudatutakoaren inbertsio-politika, errekaudatutako eskubideen kerkarien politika eta beraien inbertsioetik eratorritako errendimendua.
- c) Estatutu hauen 7. Artikuluko t) puntuan aipatzen diren Batzar Orokorrak delegatutako funtzioak egikaritu, kasua balitz.
- d) Batzar Orokorrak ezar diezazkiokeen mandatuak egikaritzea.

Barne Kontrol Organoak deitu ahalko ditu ordezkari eta gobernu organoetako kideak zein Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateko langileak, bere batzarretan ahotsarekin eta botorik gabe jardun dezaten. Ordezkari eta gobernu organoak gutxienez hiru hileko maiztasunarekin bidali behar diote Barne Kontrol Organoari kudeaketa informazioa eta bere eskuduntzak egikaritzeko beharrezkoa dena. Barne Kontrol Organoko kide orok, halaber, informazioa sarbidea izan behar du eta, aurrekoa gora-behera, Barne Kontrol Organoak ordezkari eta gobernu organoari, langileei zein zuzendaritza-pertsonari errekerimendua egin diezaiolke bere eskumenak egikaritzeko beharko lukeen ezein informazioaren gainean.

Barne Kontrol Organoak urtero Batzar Orokorrean aurkeztuko du txostena, eta berai Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak Eusko Jaurjaritzari komunikatuko dio, hark dagozkion eskumenak gauzatu ahal ditzan, Jabetza Intelektualeko Legearen 186. i) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Barne Kontrol Organoak Batzar Orokor Berezia dei dezake, estatutu hauen 10 artikuluan ageri den moduan.

Barne Kontrol Organoaren bilkuretan ezin izango da erabaki eguneko gai ordenean ez datozen gaien inguruan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

29. artikulua.- Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateko bazkide izan daiteke edozein pertsona fisiko zein juridiko. Bazkideek Estatutu hauen 2. artikuluan ageri den kudeaketa kontratua izango dute, egile eta jabetza intelektualeko eskubideen titular diren heinean. Eskubideen titularrak dira obren egileak eta legeak zehazten dituen beste titularrak; zein beraien oinordekoak, edo eskubideen jabe bihurtu direnak lagapen edo beste edozein eratako eskualdatze bidez, obren lizentzia jabeak edo kontzesiodunak barne. Edozein kasutan, bazkideen zenbakia ezingo da hamar baino txikiagoa izan.
30. artikulua.- Pertsona fisikoen kasuan baldintza hauek bete beharko dituzte: adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Pertsona juridikoek eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baldinaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.
31. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa jar daioke Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

32. artikulua.-

Bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak aurkaratzea, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Federazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoen osakerari, federazioaren kontu-egoerari eta federazioaren jarduerari buruzko informazioa jasotzea. Bazkide ez direnek ere, 2. artikuluko bazkide baten kudeaketa-kontratua dela bide edo legak hala ezartzen duelako, informazioa jasotzeko eskubidea edukiko dute, eta baita hurrengo 7) puntuan aintzatesten diren eskakizunak eta keak aurkeztekoa ere, hala agintzen baitu apirilaren 13ko 2/2018 Erret Lege Dekretuak.
- 3) Federazioko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastu-kontuen egoera, eta federazioaren ekintzen garapenaren berri edozein unetan jakitea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Federazioaren Estatutu hauen arabera, federazioko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta federazioaren ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta keak aurkeztea. Eskakizun eta keak idatziz egin beharko dira, jaso izana egiaztatzeko moduko bitartekoak erabiliz. Apirilaren 13ko 2/2018 Erret Lege Dekretuak agintzen duen gisan, ezetsi egiten badira, beti ere modu motibatuan ezetsiko dira. Erantzuna hamar (10) egun balioduneko epean emango du Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateko kasuan-kasuko organoak.
- 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (federazioaren egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.
- 11) Kidegoak bere jabetza intelektualeko eskubidek modu justu, garden eta independentean kudeatzea, eta berauetatik eratorritako eta bildutako kopuruetatik ekitatiboki dagokiona jasotzea, obren erabilpenarekin bat etorriko den kalkulu garbi baten bidez.
- 12) Jarduera eta zerbitzu asistentzialen onuradun izatea.
- 13) Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatearekin elektronikoki komunikatzeko eskubidea, horretarako webgunean ezarritako posta elektronikoko kontuak baliatuz, apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegileak ezarritako eskubidea egikaritze aldera.
- 14) Eskubideen titular direnako obren lagapen ez eskusiboak egitea, erabilera ez komertzialetarako. Edozein kasutan, erabiltzaileak jakinarazi beharko dio Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateari erabilera ez-komertziala egingo duela, eta eskubideen titular den bazkideak idatzi bidez komunikatu beharko dio beren-beregiko lagapena.

33. artikulua.-

Bazkideen eginbeharrak dira:

- a) Federazioaren helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkien bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Federazioko zuzendaritza-organoei baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.
- e) Erabiltzaileek obretaz egiten duten erabilera askea iruzurtzen ala obra zehatz batzuen lehentasunezko erabilera bidegabekoa bultzatzen duten ekintzarik ez egitea, ez eta okerreko, interesdun ala iruzurrezkoa den aldakuntzak sor ditzakeen beste edozein ekintza.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

34. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:
1. Hiltzea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea).
 2. Bazkidea bere borondatez joatea.
 3. Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: estatutuetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ZIGOR-ARAUAK

35. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeo ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instruktorea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instruktorea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

36. artikulua.- Bazkideren batek federaziotik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeo agintzea edo federaziotik kanporatzeko zigor-espeditenteari hasiera ematea erabaki dezake.

37. artikulua.- Federaziotik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espeditenteko instruktorea izan den idazkariak.

Federaziotik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzarrik egiten ez bada, batzar bat egin beharko da horretarako bakarrik. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espeditentea aurkeztuz gero, idazkariak espeditentearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

38. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegetara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

39. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA, AURREKONTU-ARAUAK, ESKUBIDEEN BILKETA ETA BANAKETA, AUDITORETZA

40. artikulua.- Federazioaren hasierako ondarea 2.000 eurokoa da.
41. artikulua.- Federazioak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- Ondarezko ekarpenak.
 - Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
 - Federazioaren ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
 - Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jardueretatik datozen diru-sarrerak.

Federazio- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) federazioak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

Aurrekontu bakarra egongo da, eta gastu eta diru sarrera guztiak barne hartuko ditu. Aurrekontu hori, egiturari dagokionez, egokitu egingo da arauz ezartzen diren Kontabilitate Plan Orokorreko egokitzapen arauetara.

GARDENTASUN TXOSTENA

42. artikulua.- Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatearen Zuzendaritza Batzordeak urteroko gardentasun txostena prestatu beharko du, aurreko ekitaldia itxi eta hiru (3) hilabeteko epean. Asistentziara, formakuntza eta sustepenera zein eskaintza digitalera biderarutako zenbatekoak agertaraziko dira bertan. Auditoreek gainbegiratuko dute, entitatearen kontabilitatearekin bat datorren egiaztatzeko, eta azterketa horren emaitza ere txostenean jasoko da osorik.

Urteroko gardentasun txostena Batzar Orokorrek onetsiko du aurreko ekitaldia itxi eta sei hilabeteko epean.

Gardentasun txostenaren gutxieneko edukia Estatutu huen I. eranskinean datorrena da.

AUDITORITZA

43. artikulua.- Estatutu huen 27 artikulua aipatzen duen auditoritza Kontu Auditoritzari Buruzko uztailaren 20ko 22/2015 Legearen arabera kontratatuko da. Auditoreek hilabeteko epea izango dute gutxienez, urteroko kontu formulatuak jasotzen dituztenetik, auditoritza txostena egiteko.

Kontuetan bereizi egin behar dira errekaudatutako eskubideak eta berauen inbertsiotik eratorritako ezein errendimendu, zein norbere aktiboak eta berauetatik, berauen deskontuetatik edo beste dedukzio batzuetatik eratorritako errentak edo beste jarduera batzuetatik eratorritakoak. Bereizi egingo dira, halaber, behin banaketa egin ondoren gera daitezkeen esleitu gabeko zenbateko errekaudatuak. Hain zuzen hori guztia auditoreek aztertuko dute, legeak ezarritakoa betetzen den edo ez aztertuz. Azterketa horren emaitza eta, baleude, zuzenketak, urteroko auditoritza txostenari erantsitako txostenean sartuko dute.

Auditoreak Batzar Orokorrek izendatuko ditu, Estatutu huen 7 artikuluan ageri den legez, auditatu beharreko ekitaldia bukatu orduko. Batzar orokorrak ezin izango ditu errebokatu hautatu zituen epealdia bukatu aurretik, salbu eta bidezko kausa bategatik ez bada. Batzar Orokorrek ez badu auditatu ekitaldia bukatu orduko auditorerik izendatu, beronek uko egingo balio enkarguari edo ezin izango balitu zereginak bete, Zuzendaritza Batzordeak zein entitateko edozein kidek eskaturik, entitatearen egoitzako merkataritza erregistratzaileak esango du nork egin beharko lukeen auditoritza hori.

Urteroko Gardentasun Txostena ere auditoreek errebisatuko dute, jakiteko hark dakarren kontabilitate informazioa entitatearen kontabilitatearekin bat datorren. Auditoreek txostena emango dute errebisio horren emaitzarekin eta, baleude,

akatsekin. Errebisio txosten hori Urteroko Gardentasun Txostenenari erantsiko zaio osorik.

JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEEN BILKETA ETA BANAKETA

44. artikulua.- Apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuak definitzen dituen eskubideengatiko diru-bilketa, kenkariak eta banaketa era honetan egingo dira:
- 1.- Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak bere helburuen baitan jabetza intelektualeko eskubideengatik bildutakoa obra edo eskubideen titularren artean banatuko du, zein eskubide mota den kontuan harturik eta erabilpenaren hein berean.
 - 2.- Bildutako diru kopuruei honako kenkariak aplikatuko zaizkie:
 - Asistentzia eta Sustapeneko fondora bideratutakoa. Zuzkidura hori ezin izango da bildutakoaren ehuneko hamarretik (%10) beherakoa izan, nahiz eta indarrean dauden lege eta araudiek gutxieneko horretatik beherako ekarpenak ahalbidetu.
 - Bilketa, kudeaketa eta banaketa gastuei lotutako kenkariak eta deskontuak.
 - 3.- Aurrekoaren ondoriozko zenbatekoa erabilitako obra edo eskubideen titularren artean banatuko da, zein eskubide mota den kontuan harturik eta erabilpenaren hein berean, beti ere Jabetza Intelektualeko Legeak eta araudiek ezarritako kalkulatzeko erregelak errespetatuz.
 - 4.- Obra baten gainean eskubidedun bat baino gehiago badago, obra horietatik edo hari lotutako eskubideetatik eratorritako zenbatekoak banatuko dira eskubidedun horiek beroriek Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitatean erregistroa egiterakoan bakoitzarentzat gordetako proportzioan.
 - 5.- Eskubideengatiko diru-bilketa, kenkariak eta banaketa arautzen duen sistema aldatzeko eskumena Batzar Orokorrak soilik dauka.
 - 6.- Gobernu- eta ordezkaritza-organoek, banaketa erregelamendua osatzen dutenean Batzar Orokorrak ondoren onar ditzan, hurreneko printzipio orokorrak errespetatu beharko ditu:
 - Banaketan arbitrariotasuna baztertzea
 - Bazkideek banaketan duten partehartzea proportzioskoa izan dadila titular bakoitzak altan emanda dituen obren eta babesturiko prestazioen erabilerarekiko, eta beraz, elkartearentzako sortzen dituzten irabaziekiko.
45. artikulua.- Euskal Kulturgileen Kidegoa-EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako Entitateak bazkideen onurarako jarduera eta zerbitzu asistentzialak zein formakuntza eta promozioak bultzatuko ditu. Hori zuzenean egin dezake, edo beste entitate batzuen bitartez. Horretarako aurreko artikuluko eskubideengatiko diru-bilketa, kenkari eta banaketaren zenbatekoaren %10 gordeko gutxienez, gehi horretara bideratu daitekeen beste irabazi edo dohaintza oro, beti ere errespetatuz unean uneko Jabetza intelektualari dagokion legediak eta araudiek ezarritakoa.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

46. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.
47. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.
- Egitasmoa onartuz gero, hurrengo ezohiko batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du, Zuzendaritza Batzordeak.
48. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

49. artikulua.- Federazioa arrazoi hauengatik desegingo da:
1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
 2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
 3. Beste federazio batek xurgatu duelako edo beste federazio batzuekin bat egin duelako.
 4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
 5. Epai irmo batek federazioa desegitea agintzen duelako.
 6. Federazioaren helburuak betetzea ezinezkoa delako.
50. artikulua.- Federazioa deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen Ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du, eta dagoen diruaz arduratuko da.
- Bazkideekiko eta besteekiko federazio-betebeharrak bete ondoren, geratzen den federazio-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenei bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behingo izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo batzar orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuak aldatuko.

Euskal Kulturgileen Kidegoa–EKKI FEDERAZIOA Jabetza Intelektualeko Eskubideen Kudeaketarako
Entitatearen Estatutuen **I. eranskina**

Urteroko Gardentasun Txostenaren gutxieneko edukia

BAT. Urteroko Gardentasun Txostenak gutxienez informazio hau jasoko du:

- a) Finantza egoera: balantzea, ekitaldiko emaitzen kontua eta memoria.
- b) Ekitaldiko jardueran txosten bat.
- c) Entitateak kudeatutako eskubideen gaineko baimen ez-esklusibo bat emateari uko egin bazio, horren inguruko informazioa.
- d) Kudeaketa erakundearen egitura juridiko eta administratiboaren deskripzioa.
- e) Kudeaketa erakundeak osorik edo zati batez, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen duen edo jabe den beste ezein entitatearen inguruko informazioa.
- f) Aurreko ekitaldian apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren 161 eta 162. artikuluetan ezartzen diren pertsonen ordaindutako ordainserien zenbateko osoa eta, egon badira, jaso duten beste ezein onuraren zenbatekoa.
- g) BI. puntuan ageri den finantza-informazioa.
- h) HIRU. puntuan datorren informazioa dakarren txosten berezi bat, zerbitzu sozial, kultural eta hezkuntzazkoen geinekoa.

Aurreko f), g) eta h) letretako zenbatekoek jada itxitako ekitaldikoak eta haren aurreko ekitaldikoak izan behar dute. Zifrok konparagarriak ez balira, berauen sorburua aldatu delako, irizpidea bestelakoa izan delako edo erreagatik, aurreko ekitaldiko informazioa egokitu egin beharko da, dagokion ekitaldian aurkezteko. Inguruabar horretaz xehe-zehe informatu beharko da.

BI. Urteroko Gardentasun Txostenak honako finantza-informazioa jaso behar du:

a) Errekaudatutako eskubideen finantza-informazioa, eskubide kategoriatan eta erabilpenaren arabera banatua. Eman beharko da, halaber, errekaudatutakoaren inbertsioetatik eratorritakoaren inguruko informazioa eta berauen erabilpena (bazkideen artean banatua, beste entitate batzuei transferitua edo bestelakoa).

b) Entitatearentzat eskubideen kudeaketak edo eskubideen titularrei emandako zerbitzuek izan duten kostuen finantza-informazioa, honakoak bilduko dituen gutxienez:

1.- Ustiapen kostua eta finantza kostu guztiak, kudeatutako eskubide-kategorietan banatuak. Kostuak zeharkakoak direnean eta kudeatutako eskubide-kategorietan banatu ezinak, azaldu beharko da zeharkako kostu horiek asignatzeko erabili den metodoa.

2.- Ustiapen kostuak eta finantza kostuak, kudeatutako eskubide-kategorietan banatuak, eta kostuak zeharkakoak direnean eta kudeatutako eskubide-kategorietan banatu ezinak, azalduz zeharkako kostu horiek asignatzeko erabili den metodoa, baina huen gainekoa bakar-bakarrik: eskubideen kudeaketa, errekaudatutako eskubideetatik edo berauekin konpentsatutakoetatik deduzitutako deskontuak barne, zein errekaudatutako eskubideen inbertsioetik eratorritako ezein errendimendu.

3.- Ustiapen kostuak eta finantza kostuak, eskubideen kudeaketa zerbitzuenak, baina barne harturik baita zerbitzu sozial, kultural eta hezkuntzakoak.

4.- Kostuak estaltzeko erabilitako errekurtsuak.

5.- Errekaudatutako eskubideen gain aplikatu diren kenkariak, kudeatutako eskubide-kategorietan eta erabilpenaren arabera banatuak, zein kenkarien xedea (esate baterako zerbitzu sozial, kultural eta hezkuntzakoekin zerikusia dutela).

6.- Ze ehuneko hartzen duten kasuan-kasuko ekitaldian, eskubideen kudeaketa zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuek, errekaudatutako eskubideekiko. Informazio hau emango da, kostuak zeharkakoak direnean eta kudeatutako eskubide-kategorietan banatu ezinak, azalduz zeharkako kostu horiek asignatzeko erabili den metodoa.

c) Eskubideen titularrei ordaindu behar zaizkien zenbatekoen inguruko finantza informazioa, gutxienez honakoa azalduz xehe-xehe:

1.- Eskubideen titularrei esleitutako zenbateko osoa, eskubideen kategoriaren eta erabilpen motaren arabera banatua.

2.- Eskubideen titularrei ordaindutako zenbateko osoa, eskubideen kategoriaren eta erabilpen motaren arabera banatua.

3.- Ordainketen maiztasuna, eskubideen kategoriaren eta erabilpen motaren arabera banatua.

4.- Eskubideen titularrei esleitu gabeko baina jada errekaudatutako zenbateko osoa, eskubideen kategoriaren eta erabilpen motaren arabera banatua, eta zenbatekook zein ekitalditan errekaudatu ziren esanez.

5.- Eskubideen titularrei esleitutako baina ordaindu gabeko zenbateko osoa, eskubideen kategoriaren eta erabilpen motaren arabera banatua, eta zenbatekook zein ekitalditan errekaudatu ziren esanez.

6.- Kudeaketa erakundeak ez badu banaketa eta ordainketa egin apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren 177.1 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako epean, atzerapenaren zioa.

7.- Banatu ezin diren zenbatekoen kopuru osoa, beroni eman zaion erabilpena azalduz.

d) Beste kudeaketa erakunde batzuekin dituen harremanen inguruko informazioa, honakoa adieraziko duena gutxienez:

1.- Beste kudeaketa erakunde batzuetatik jasotako zenbatekoak eta berauei ordaindutakoak, eskubideen kategoriaren, erabilpen motaren eta entitatearen arabera banatuak.

2.- Beste entitate batzuei ordaindu beharreko kudeaketa deskontuak eta errekaudatutako eskubideen inguruko kenkariak, eskubideen kategoriaren, erabilpen motaren eta entitatearen arabera banatuak.

3.- Beste entitate batzuek ordaindutako kudeaketa deskontuak eta errekaudatutako eskubideen inguruko kenkariak, eskubideen kategoriaren, erabilpen motaren eta entitatearen arabera banatuak.

4.- Beste kudeaketa erakunde batzuetako eskubideen titularrei zuzenean banatutako zenbatekoak, eskubideen kategoriaren eta entitatearen arabera banatuak.

HIRU. Honako informazioa txosten berezian eskaini beharko da entitateko kideen mesedetan eskainitako zerbitzu asistentzialetara zuzendutako zenbatekoak zehaztuz, eta baita autore, artista, interprete eta jotzaileen formakuntza eta sustapenera zein kudeatzen diren obren eta prestazioen inguruko eskubideen eskaintza digital legalaren sustapenera zuzendutakoak:

a) Entitateak ekitaldian izan duen zenbatekoa arestian aipatutako jarduerak egiteko, bai osorik bai honen arabera desglosatua: nondik eratorri den, apirilaren 12ko 1/1996 Erret Dekretu Legegilearen bidez onetsitako Jabetza Intelektualeko Legearen testu bateratuaren 175.3, 177.6 eta 178.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat eta adieraziz, hala badagokio, jarduerok egin eta sortu den soberakina.

b) Zerbitzu eta jarduera horiek emateko deduzitu diren zenbatekoak, berauen helburuen arabera sailkatuak eta, helburu bakoitzarekiko, honela sailkatuak: eskubideen kategorია eta erabilpen mota.

c) Zenbateko horien erabilpenaren azalpen bat, helburuaren araberrako desglosearekin, zerbitzuotarako eta jarduerotarako deduzitutako zenbatekoen kudeaketa kostua adieraziz, eta bakoitzerako erabilitako zenbatekoak bereiziz.